



# 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

---

Gure ideia, herrian aparkatzeko dauden arazoak ikusita azaldu zitzaigun. Aplikazio bat da. Aplikazio honek aparkaleku guztiak kontrolatzen ditu eta badaki zeintzuk dauden okupatuta eta zeintzuk dauden libre. Horrez gain, sistema bera erabiliko dugu bizikletak eta patinete elektrikoak aparkatzeko, hau da, garraio hauek aparkatzeko libre dauden lekuak esango digu. Gure aplikazioak bezeroei jakinarazten die zein aparkaleku dauden libre eta horrez gain, beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu:

- Aparkalekuak bilatzen ditu.
- TAO ordaindu
- Parking-a ordaindu
- Kotxearen kokapena jakinarazi
- GPS zerbitzua
- Isunak kudeatzeko zerbitzua.

Bezeroek gure aplikazioa erabiliko dute hainbat arrazoiengatik:

- **Lana errazten du:** Hirietan oso zaila da aparkatzea parking-a erabili gabe, baina aplikazio honekin aparkatzea erreza izango da, aplikazioak leku libre bat non dagoen esango digulako.
- **Erabilerraztasuna:** Mugikorrerako aplikazio sinple bat da, kotxearekin konektatu daitekeena.
- **Eskuragarritasuna:** Deskargatzeko erreza eta dohainik
- **Berritasuna:** Aplikazio lagungarria da, prestazio ugari eta erabilgarriak eskaintzen dituena.
- **Prestazioak:** Aparkalekua bilatzeaz gain, beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditugu, lehen aipatu ditugunak: TAO ordaindu, parking-a ordaindu, multak kudeatzeko zerbitzua eta kotxearen kokapena, GPS-arekin konektatuta.

# 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

